20 urtetik gorako garai horretan, familien, profesionalen, gaixotasuna pairatzen duten pertsonen, pertsona boluntarioen eta erakundeen konpromiso eta lanari esker, gizarteak kolektibo horren aurrean erakusten zuen ezjakintasun nabaria gainditzea lortu dugu, arian-arian; kontuan hartu behar da, gainera, ezjakintasun horrek diskriminazioa eta estigmatizazio soziala ekarri dituela hainbat kasutan.

Beharrezkoa da buru-gaixotasunak dituzten pertsoneri beren ahalmenaz jabetzen laguntzea; izan ere, era horretan gaitasun handiagoa izango dute osoko garapena lortzeko bizitzaren eremu guztietan; halaber, laguntza eman behar zaie beren autonomia pertsonala ahalik eta gehien garatu dezaten eta komunitatean modu aktiboan parte hartu dezaten.

Buru-gaixotasunak dituzten pertsonen baliabideak eta laguntzak ugaritu egin dira hainbat eremutan. AVIFESek zenbait zerbitzu kudeatzen ditu, baina oraindik ere beharrezkoa da laguntza eta plaza gehiago sortzea. Alde horretatik, **Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak Zaintzeari buruzko 39/2006 Legeak (Mendetasunaren Legea)** aukera eskaintzen du horretarako, zeren buru-gaixotasunak dituzten pertsonak ere hartzen baititu kontuan.

3 ZER DA NAHASMENDU BIPOLARRA?

Nahasmendu Bipolarra gogo-aldartearen nahasmendu bat da, lehen psikosi maniako-depresibo deitzen zena. Definizioari dagokionez, esan dezakegu nahasmendu bipolarra gaixotasun kroniko bat dela, non nahasmendu bat gertatzen baita emozioak eta umorea erregulatzen dituzten burmuin-mekanismo biokimikoetan. Gaixotasun hori pairatzen duten pertsonak nahasteak edo alterazioak izaten dituzte gogo-aldartean eta jokabidean, eta horrek eragin nabaria izaten du beren eguneroko bizimoduan eta beren senideen eguneroko bizimoduan.

Gaixotasuna mota desberdineko episodiotan agertzen da.

- EPISODIO MANIAKOA: pertsona euforiko dago; beraren eguneroko jarduera fisiko eta mentala modu patologikoan handitzen da.
- EPISODIO HIPOMANIAKOA: kasu honetan, pertsonak maniaren sintomak ere izaten ditu, baina haien intentsitatea txikiagoa da.
- EPISODIO DEPRESIBOA: pertsona oso triste sentitzen da, oso desanimatuta, eta hori islatu egiten da berearen eguneroko jardunean.
- EPISODIO MISTOA: episodio hauetan, pertsonak sintoma maniakoak eta depresiboak izaten ditu, txandaka. Euforia senti dezake, baina bizi-indarrak izan gabe; edo, kontrako muturrean, gogo-aldarte depresiboa izan dezake baina oso aktibo egon.

Fase batetik bestera (maniatik depresiora) pasatzea ez da beti erritmo edo maiztasun berberarekin gertatzen, eta, esan dugun bezala, fase horien artean badira egonkortasunaldiak. Maiztasuna desberdina da pertsona bakoitzarentzat.

Azken azterlanen arabera, nahasmendu bipolarra biztanleria orokorraren %1,2rengan agertzen da, eta eragin berdintsua du gizonengan eta emakumeengan. Dena dela, azpimarratzekoa da azterketek erakusten duten zerbaite, hots, gizonek maiztasun berberaz pairatzen dituztela episodio maniakoak eta depresiboak, eta emakumeek, berriz, episodio depresibo gehiago izaten dituztela.

Gaixotasun bipolarra gaixotasun kroniko bat da, baina tratamendu egoki batez gaixoberritzeak (episodioen agerpenak) murriztu daitezke eta pertsona saia daiteke bizi-kalitate hobea lortzen.

4

NOLA JAKIN OTE DAITEKE EA PERTSONA BATEK NAHASMENDU BIPOLARRA DUEN?



Diagnosia profesional sanitario talde batek egin behar du, pertsonaren historia medikoa eta miaketa psikopatologikoa oinarritzat hartuta.

Diagnosi mota hori egitea ez da erraza, eta sarritan gerorako utzi behar izaten da. Pertsonarengan agertzen diren sintoma asko beste gaixotasun batzuetan ere agertzen dira, eta, gainera, sintoma horiek aldatu egin daitezke denboran zehar. Normalean, pertsonari gertatzen zaiona depresio bat edo beste gaixotasun mota bat dela pentsatu ohi da, eta episodio maniako bat agertu arte ezin izaten da diagnosia segurtasunez egin. Horrez gain, gaixotasuna sintoma desberdinez agertzen da pertsona bakoitzarengan, eta horrek egoera bakarrak eta pertsonalak sortzen ditu.

Nahasmendu bipolarra nerabezaroan edo helduaroaren hasieran agertu ohi da. Normalean, modu akutuan agertzen da, eta sintomak egun edo aste batzuen buruan azaleratzen dira. Episodioen iraupena oso aldakorra da: batzuetan egun batzuez irauten dute eta beste batzuek hilabete batuez; ezinezkoa da eboluzioa segurtasunez determinatzea, ezta pertsona berberaren kasuan ere.

5 ZEIN DIRA HAREN SINTOMAK?

Garbi dago, jakina, gaixotasuna modu bakarrean agertu eta garatzen dela pertsona bakoitzarengan, baina badira diagnosi hori duten pertsonentzat komunak diren sintoma batzuk. Sintoma horiek lehen aipatutako episodio maniako eta depresiboen barnean sailkatuko ditugu.

EPISODIO MANIAKOA

- *Gogo-aldartearen nahasteak*: pertsona euforiko dago, hiperaktibitate orokorreko egoeran. Pertsona gai sentitzen da edozer egiteko. Kasu batzuetan, gogo-aldartearen kitzikapena izugarria da, eta horrek etsaitasuna edo sumintasuna ekartzen du.
- *Gaixotasunaz ez konturatzea*: episodio hauetan, gerta liteke pertsona ez sufritzea berengan sortzen diren sintomengatik, oso ondo sentitzen da, eta ez du ulertzen zergatik jarraitu behar duen tratamendu bat.
- *Jokabidea oso nahastuta dago*: pertsonak denbora gehiena eman dezake planak egiten edo proiektu erraldoiak garatzen. Bere bulkaden kontrola oso makala da.
- *Ez du interesik bere itxura pertsonalagatik*: zaindu gabeko itxura du, garbiketa onik gabe.
- *Prozesu kognitiboan nahastea*: prozesu kognitiboak izugarri azeleratzen dira. Oso arin eta etenka hitz egiten du, gai batetik bestera pasatzen da arrazoirik gabe, eta zailtasun larriak ditu arretari eusteko.
- *Nahasteak errealitatearen eta norberaren pertzepzioan*: bere autoestimua hipertrofia handia izan dezake, hainbestearino non eldarnio (handitasun-eldarnioa, adibidez) edo haluzinazio moduko sintoma psikotikoak izan ditzakeen. Bere buruarenganako konfiantza handiegia da.
- *Sintoma fisikoak*: loaren nahasteak izatea –denbora luzea eman dezake lo egin gabe–, jateko gogo handiagoa izatea eta neke fisikoaren atalasea modu izugarrian igotzea.
- *Zailtasunak pertsonen arteko harremanetan*: harremanak oso zailak dira episodio maniakoetan. Pertsona polemista eta kontrolatzaile

agertzen da, ez du onartzen beraren kontra ezer esatea edo beraren jokabidea desegokia dela erakusten saiatzea.

Tratamendu farmakologiko egoki batez, fase honetan azaleratzen diren sintomak nabarmenki murrizten dira.

EPISODIO DEPRESIBOA

- *Gogo-aldartearen nahastea*: tristura sentimendu handia, apatia, interes galera lehen interesatzen zitzaien guztiagatik, eroritasuna, zorionik eza. Beldur irrazionala agertzen da gauza guztien aurrean, eta horrek babesgabe sentiarazten die. Bakarrik egoteko desio handia sentiitzen dute. Halaber, sarritan agertzen dira suminkortasuna, hutsune-sentsazioa eta urduritasuna.
- *Pertzepzioaren nahastea*: deprimitutako pertsona batek bere buruaz, bere inguruneaz eta bere etorkizunaz egiten duen balorapena negatiboa izan ohi da. Horrenbestez, bere burua gutxiestea eta erruduntzat hartzea eta bere autoestimua galtzea funtseko edukiak izaten dira pertsona horien pentsamenduetan. Ideia pesimista errepikakorrek agertzen dira.
- *Sintoma fisikoak*: beste sintoma arrunt batzuk hauexek dira: gehiegizko nekea, jateko gogoa galtzea, eta jarduera eta desio sexuala jaitea –gizonen kasuan, erekzio arazoak ere ekar ditzake horrek–. Halaber, lo egitearekin zerikusia duten nahasteak ere agertzen dira. Pertsona gehienek insomnioa pairatzen dute (lo hartzeko arazoak, gauen maiz esnatzea edo goizegi esnatzea); dena dela, pertsonen ehuneko txiki batek hipersomnia paira dezake. Gorputz-molestia zehaztugabeei buruzko kexak ere agertzen dira etengabe (buruko eta bizkarreko mina, goragaleak, gorakoak, idorreria, mikzio mingarria, ikusmen lausoa, eta abar.).
- *Prozesu kognitiboaren nahastea*: episodioak badu eragina errendimendu kognitiboan. Oroimena, arreta eta kontzentrazio-gaitasuna ukituta gera daitezke modu nabarian, halako moldez non ezin erabil baitaitezke eguneroko zereginetan. Heriotzarekin lotutako pentsamenduak ager daitezke etengabe.

- *Zailtasunak pertsonen arteko harremanetan*: pertsonak baditu zailtasun nabariak harremanak hasteko eta mantentzeko. Sarri askotan, aurretik zituen harremanak hondatu egiten dira. Normalean, inguruko pertsonak baztertu egiten dute, eta horren eraginez are gehiago isolatzen da bere inguruetik.

Pertsonak episodio depresiboak izan ditu aurretik eta badaki aldi baterakoak direla, baina, hala eta guztiz ere, berarentzat ez da erraza egoera hori ulertzea, eta bere biziak zentzurik ez duela eta tratamendua egiteak merezi ez duela pentsatzeko joera izaten du. Horregatik, ezinbestekoa da pertsonak behar dituen sostenguak izatea (senide eta profesionalenak, farmakologikoak, eta abar).

HIPOMANIA EPISODIOA

Sintomak ez dira mania-episodioetakoak bezain biziak eta dramatikoak. Ez dago sintoma psikotikorik (eldarnioak eta haluzinazioak), eta ez da gertatzen ospitaleratzera behartzen duen jokabide-aldaketarik. Episodio mota honetan, sintoma hauek azpimarratu ditzakegu:

- Ongizate sentsazio bizia.
- Sormen handiagoa.
- Autoestimu ona.
- Loaren nahasteak (insomnioa).
- Suminkortasuna.
- Pentsaera azeleratua.
- Ezegonkortasuna, mania-fasera eraman dezakeena.
- Alkohola edo drogak hartzeko posibilitatea.

Fase hau mania-episodio batez bukatu ez dadin, funtsezkoa da tratamenduarekin jarraitzea.

Halaber, ARINTZE-EPISODIOez ere hitz egin dezakegu. Sasoi horietan, pertsonengan ez da sintomarik agertzen. Sostengu-sare zabal eta egokia duen eta tratamendua modu iraunkorrean betetzen duen pertsonak egonkortasun-aldiak izan ditzake maiz.

6 ZEIN DIRA NAHASMENDU BIPOLARRAREN MOTAK?

Sintomen intentsitatea eta pertsonak bere bizitzan zehar dituen episodioak kontuan hartuta, sailkapen hau egin dezakegu:

I. MOTAKO NAHASMENDU BIPOLARRA

Mota klasikoa da. Ezaugarri nagusia da intentsitate handiko mania eta depresio faseak tartekatzea. Desberdintasunak egon daitezke pertsonen artean, norberak zenbat eta zer-nolako episodio dituen eta haien intentsitatea kontuan hartuta. Pertsona batzuek episodio maniako eta depresiboen kopuru berbera izaten dute; beste batzuek, berriz, episodio mota bat edo bestea izaten dute gehienbat. Azterlan batzuen arabera, ohikoagoa da gizonak episodio maniakoez hastea eta emakumeek episodio depresiboez.

II. MOTAKO NAHASMEN DU BIPOLARRA

Beraren ezaugarri nagusia da depresio sakonak eta hipomania tartekatzen dituela. Fase depresiboetan sintoma psikotikoak ager daitezke. Euforia ertaineko faseak pertsonaren aldarte-aldaketekin nahasten dira sarritan. Pertsonaren soziabilitatea handiagoa izan daiteke, eta, hortaz, zailagoa da arazoaz konturatzea.

FASE MISTOAK

Fase hauetan, episodio maniako eta depresiboak nahastuta agertzen dira. Hori nahasmendu bipolarra duten pertsonen %30ari gertatzen zaio. Sarritan, pertsona alaitsu eta triste egoten da egun berean, eta sarri askotan suminkor eta haserre dago. Horren eraginez, bai pertsonarentzat eta bai bere ingurukoentzat zaila izaten da gaixotasuna ulertzea.



ZIKLAZIO ARINA

Lehen deskribatutako lau episodioak urte berean dituzten pertsonengan gertatzen da. Kasu horretan, beharrezkoa izango da tratamendu berezi bat betetzea eta gaixoa arreta bereziz atenditzea, gaixotasun batzuk baztertzeko –batzuetan, tiroide guruinaren alterazioekin izan dezakete zerikusia–.

Indarrean dauden teoriak urrakortasun eta estreseko eredu biopsikosozial batean integratzen dituzte aurkikuntzak. Teoria horien oinarrietan hainbat faktore biltzen dira: faktore genetikoak, ingurune-faktoreak, faktore psikologikoak (estresa, euskarri soziala) eta baita meteorologikoak ere (urtaroen aldaketak).

GAIXOTZEKO JOERA SORTZEN DUTEN FAKTOREAK

- *Genetikoak*: baliteke faktore genetikoak izatea nahasmendu bipolarraren kausa nagusia. Zenbait azterlanek erakutsi dutenez, familia berean badira gaixotasun hau diagnostikatu zaien senide batzuk. Nahasmendu bipolarra pairatzen duten pertsonen seme-alaben artean, hirutatik batek gaixotasun hori pairatzen du gurasoetako batek ere pairatzen baldin badu; bi gurasoek nahasmendu bipolarra baldin badute, berriz, gaixotasun hori duten seme-alaben ehunekoa are handiagoa da.
- *Biokimikoak*: Fase depresiboan dauden pertsonen kasuan, erlazio bat detektatu da neurotransmisoreetan, eta nabarmena da noradrenalinaren presentzia. Ezaguna da, gainera, depresioa hipotiroidismoarekin lotzen dela, eta baita kortikotropina eta glukokortikoideak askatzen dituen faktorearen igoerarekin ere. Ezaguna da, halaber, kortikoideak administratzeak konplikazio larriak ekar ditzakeela, bai depresiboak eta bai maniakoak.

GAIXOTASUNA ABIARAZTEN DUTEN FAKTOREAK

Pertsoneri urrakorrei –gaixotzeko joera izan dezaketenak– estres handia sortzen dieten bizi-egoerak gertatzeak abiaraz dezake gaixotasuna. Gertaera horiek, adibidez, hauexek izan daitezke: maitatutako pertsona baten heriotza, etxez aldatzea, unibertsitatean ikastean hastea, soldaduska, lanean hastea edo lanpostua galtzea, eta abar.

GAIXOTASUNA IRAUNARAZTEN DUTEN FAKTOREAK

Gaixotasuna hasi denean, sintomak okertzera edo mantentzera daramaten sintoma batzuk detektatu ditzakegu; beste batzuk, aldiz, lagungarriak dira urrakortasun gradua murrizteko:

BABESLEAK

- Medikazioa behar den bezala hartzea.
- Sostengu familiar eta sozialak izatea.
- Zeregin batean aritzea.
- Sintomak ezagutzea eta antzematea.
- Bizimodu osasuntsua egitea (lo egiteko ordutegi egonkorra, gai toxikorik ez kontsumitzea...).

ARRISKUAK:

- Gertaera larriak.
- Eguneroko errutinak antolatuta ez egotea.
- Medikazioa bertan behera uztea.
- Aurretiko joera psikologikoa.
- Gehiegizko emozio-zama familiaren aldetik: gehiegizko babesa, kritika, gutxiespena.
- Alkohola eta drogak kontsumitzea.

Nahasmendu bipolarra nerabezaroaren azken fasean agertu ohi da, gutxi gorabehera 20 urterekin. Batzuetan, gaixotasuna adin horretan agertzen da baina ez da azaleratzen; gero, helduaroan azaleratzen da bat-batean, fase depresibo edo maniako batez. Lehendabiziko episodioa estresa sortzen duen ingurumen-faktore baten ondorio izan ohi da, baina gainerako episodioak modu independentean ager daitezke, hau da, kanpo faktoreei lotuta egon gabe.


Lehen esan dugunez, eboluzio kronikoa duen gaixotasun honek zenbait fase ditu, eta azpimarratzekoak dira maniaren eta depresioaren episodioak. Episodioen nolakotasuna eta haien maiztasuna desberdinak izango dira pertsona bakoitzarengan. Pertsona batzuek episodio maniako eta depresibo berdintsuak dituzte –kopuru aldetik–, baina beste pertsona batzuek bi fase horietako bat nagusitzen da presentzia aldetik. Nahasmendu bipolarra duten pertsonak lau episodiotan izaten dituzte, batez beste, gaixotasunaren lehenengo 10 urteetan. Episodioen arteko denbora-tartea gutxituz doa adina igotzen den neurrian (adinarekin, episodioen arteko tarte asintomatikoak gero eta laburragoak dira). Episodioen intentsitatea ez da beti berdina izaten.

Zenbait azterlanen arabera, bai episodio maniakoak eta bai depresiboak urtaro jakin batzuetan agertzen dira gehien. Eguzki-orduek duten eraginarekin lotzen dute hori; hala, depresioa udazkenean eta neguan agertzen da gehienbat, eta mania udaberrian eta udan.

Tratamenduaren eraginez, faseak laburtzen dira eta haien arteko episodioak luzatzen dira, eta horrek hobetu egiten du pertsonaren bizi-kalitatea.

Bada pronostikoa hobetzearekin lotuta dagoen faktore multzo bat:

- Sostengu-sare zabala izatea.
- Tratamendua behar den bezala betetzea.
- Lo egiteko ordutegi erregularra izatea.
- Egituratutako ekintzak egitea.
- Ez hartzea ez alkoholik ez drogarik.
- Gaixoberritzearen sintomak detektatzen ikastea.



Norberaren burua hiltzeko ideiak gaixotasun osoan zehar ager daitezke, ez episodio depresiboetan soilik. Sarriagoak dira gaixotasunaren hasieran. Tratatu gabeko paziente bipolarren suizidio tasa %10-15 da, eta arrisku hori murrizteko eta eboluzioaren hobekuntza segurtatzeko forma lehen adierazitako arauak betetzea da.

Pertsonak bizi-kalitate ona lortu dezan eta gaixotasunaren eboluzioa ona izan dadin, pertsona horrek sostengu egokiak izan beharko ditu.

Tratamendu farmakologikoak oso pisu handia izango du prozesu horretan. Dena dela, ez dugu pentsatu behar horixe izango dela pertsonaren sostengu bakarra; izan ere, horrez gain tratamendu psikosozial bat ere izango da beharrezkoa, gaixotasunaren ondorioz pertsonarengan agertzen diren behar guztiak bideratzen laguntzeko.

Baditugu zenbait baliabide farmakologiko gaixotasunari aurre egiteko. Azken urteotan, gainera, aurrerapen mardula nabaritu dugu alor horretan.

Gaixotasuna arintzen edo baretzen den episodioetan, erabiltzen diren farmakoak hauexek dira: gogo-aldarte erregulatzen dutenak eta episodio depresibo edo maniakoan berragerpena eragozten dutenak. Farmako horiek EUTIMITATZAILEAK dira, hots, umorea erregulatzen dutenak. Gaixotutako pertsonak bere bizitza osoan hartu beharko ditu. Gehien erabiltzen dena LITIOA da.

Litioa oso kantitate txikietan agertzen da gizakiongan, eta nahasmendu bipolarra duten pertsonen kantitate handiagoa behar dute gogo-aldarte egonkorra mantentzeko, hots, elikagaien bitartez lortzen dena baino kantitate handiagoa. Horrek ez du esan nahi pertsonari litioa falta zaionik, bazik eta mineral hori tratamendu bezala erabil daitekeela eta lagungarria izango zaiola bere gogo-aldarte normaltzeko.

Pertsona bakoitzak behar duen litio-dosia desberdina izango da, eta zenbait faktoreren mende egongo da: adina, sexua, pisua edo muskulu-masa, beste botika batzuen erabilera... Horregatik, oso garrantzitsua da pertsonaren litio-balioak aldizka kontrolatzea, odoletan duen kontzentrazioa neurtuz; horri esker, profesional medikoak modu egokian doitu ahal izango ditu dosiak, pertsonarentzat kaltegarria izan litekeen mailara iritsi ez daitezen. Horretarako, LITEMIA izeneko analisi bat egin beharko da aldizka.

Orokorrean, litioa ondo toleratzen den farmako bat da. Albo-efektu ohikoena hauexek izaten dira: dardara, egarria, sarriagotan gerneru egin behar izatea, diarrea, abdomeneko mina eta zorabioak. Kasu

batzuetan, boziora garatu daiteke (tiroide-guruinaren tamaina handitzen da, haren aktibitatea jaistean), eta, hortaz, tiroide-hormonen azterketa egin behar da medikazioarekin hasi aurretik, eta gero azterketa horiek urtean behin egin behar dira, gutxienez. Halaber, beharrezkoa da giltzurrunaren funtzioa kontrolatzea, sei hiletik behin azterketak eginez, haren normaltasuna bermatzearren. Garrantzitsua da tratamendu horren berri ematea familiako medikuari edo pazientearekin zerikusia duten gainerako profesional medikoei.

Jarraitze horiek betez gero, esan dezakegu Litioa tratamendu segurua dela, onura nabarmenak baititu.


Tratamendu hori ezin egin dezaketean pertsonak badituzte beste aukera alternatibo batzuk, hala nola EUTIMIZATZAILEAK erabiltzea. Izan ere, botika horiek epilepsia tratatzeko erabili izan dira, eta frogatuta dago baliagarriak direla nahasmendu bipolarraren gaixoberritzeak prebenitzeko.

Fase depresiboetan antidepresiboak erabiltzen dira, zeren lagungarriak baitira gogo-aldarteak hobetzeko. Nahasmendu bipolarraren barnean bada arrisku bat, alegia, antidepresiboek pazientearen egoera aldaraz dezaketela, depresiotik maniara edo hipomaniara pasaraziz. Horregatik, haien erabilera murriztu egin behar da hori klinikoki beharrezkoa denean. Farmako horien eragina ez da berehalakoa; aitzitik, hiru eta sei aste bitarteko epea pasatu behar da pazienteak farmakoa hartzen hasten denetik hobekuntza-sintomak nabaritzen dituen arte.

Zenbait egoeratan, antidepresiboek efektu negatibo hauek izaten dituzte: zailtasunak funtzio sexuarean (pazienteen %60), zorabioak eta digestio-eragozpenak, hala nola goragaleak eta diarreak (%10).

Intentsitate handiagoko episodio depresibo bat agertzen denean, antidepresibo triziklikoak erabiltzera jo behar dugu (Imiprimina, Klomipramina edo amitriptilina, besteak beste). Farmako horien albo-efektuak toleratzea zailagoa izaten da.

Konbultsio elektrikoaren terapia tratamendu gisa erabiltzea ez da oso ohikoa, oso kasu konkretuetan erabiltzen baita.



Mania faseetan, tratamendu farmakologikoaren bidez bilatzen dena da euforia sintomak gelditzea. Erabiltzen diren farmakoak **ANTIMANIAKOAK**, **ANTIPSIKOTIKOAK** edo **NEUROLEPTIKOAK** dira. Normalean, antimaniakoak denbora-tarte labur batez erabiltzen dira, hots, episodioa moteltzeko behar den denbora-tarteaz. Farmako horien albo-efektu ohikoenak hauexek dira: lokuma, gorputz-adarren zurruntasuna, geldotasuna eta jateko gogoaren igoera. Aipatutako farmakoez gain, ohikoa da antsietatea moteltzen duten edo insomnia hobetzen laguntzen duten botikak ere hartzea, hala nola antsiolitikoak edo benzodiazepinak eta hipnotikoak.

Zenbait kasutan, fase horiek ezin kontrola daitezkeenean ezarritako tratamenduarekin, eta pertsonarentzat edo bere ingurukoentzat arriskua egonez gero, beharrezkoa izan daiteke pazientea ospitaleratzea.


Tratamendu farmakologikoa aztertu ondoren, gogoratu behar dugu oso garrantzitsua dela pertsonari tratamendu integral bat eskaintzea, bizi-kalitate onarentzat lagungarriak izan daitezkeen sostengu guztiak barne sartuta.

PSIKOTERAPIA ETA TRATAMENDU PSIKOSOZIALAK

Interbentzio psikologiko eta sozialak dira, xede hauek dituztenak: nahasmendu bipolarra duten pertsonen laguntzea, koadro klinikoaren egonkortasuna mantentzea, eta funtzionamendu psikosoziala eta eguneroko jarduna hobetzea. Azken batean, pertsonaren autonomia maila igotzen saiatzen dira, bizi-kalitate handiagoa lortzen saiatzeaz batera.

Teknika kognitibo-konduktualek, gaitasun sozialen trebakuntzak eta psikoheziketak frogatuta dute beren eraginkortasuna alor horretan.

Dena dela, gaixotasunari aurre egiteaz gain, pertsonen esperientzia esanguratsuez gozatu behar dute, alegia, beren hazkunde eta garapen pertsonalarentzat lagungarriak diren esperientziez. Badira pertsonen ongizatearentzat oso onuragarriak diren zenbait elementu, hala nola beren balio pertsonala edo autoestimua igotzen duten lorpenak



esperimentatu ahal izatea, adiskidetasun harreman pertsonalak eraikitzekeo esparru bat izatea, eta eurekin zerikusia duen guztiari buruzko erabakiak hartzea eta beren lehentasunak adieraztea.

Kontua da pertsoneri laguntzea beren bizi-proiektuaren sorreran eta garapenean.

Baliabide hauek eskura jartzearen bidez bilatzen diren emaitzak hauek dira:


- Egokitzeko gaitasunen eta gaitasun funtzionalen maila igotzea (norberaren burua zaintzea, enplegurako gaitasuna, komunitatean integratzea, etxean autonomiaz aritzea, lagunak egitea).
- Komunitatean presentzia izatea eta bertan parte hartzea ahalbidetzen duten ezaugarriak indartzea; erabakiak hartzea, ahalmena eta errespetua.
- Ongizatea hobetzea pertsonaren dimentsio guztietan.

SOSTENGU-SAREA

Pertsona baten sostengu-sarearen osagaiak bai sostengu naturalak (pertsona bera, familia, lagunak, harreman informalak, eta abar) eta bai sostengu profesionalak dira (profesional sanitarioak, baliabide komunitarioak, eta abar). Garrantzitsua da pertsonak sostengu-sare zabala eta egokia izatea. Sare horren kide bakoitzak modu desberdin batean lagunduko dio pertsonari bere bizi-prozesuan, eta lagungarria izango da gaixotasunaren eboluzio positiborako.

FAMILIAREN SOSTENGUA

Familiak funtsezko lekua du pertsonaren sostengu-sarean. Senideak erreferentziatzko figurak dira pertsonarentzat, eta oso euskarri garrantzitsuak eskaintzen dituzte, bai gaixotasunaren eboluzioarentzat eta bai pertsonaren garapenarentzat.



Senideek lagundu ahal izan diezaioten gaixotutako pertsonari, sentimendu batzuk landu behar izango dituzte –larritasuna, ezintasuna–, eta aurrera egin beharko dute egoera familiar berria eta gaixotutako pertsona onartzeko bidean.

Horretarako, garrantzitsua da jarraibide hauek kontuan hartzea:

- Gaixotasuna eta pertsonaren beharrak ezagutzea.
- Harreman ona eratzea senidearekin, eta harremanak hasteak beren senideari lagundu diezaioketen pertsona guztiekin.
- Buru-gaixotasuna pairatzen duen pertsonari laguntzeko eta harekin bizitzeko prozesuari lagundu diezaioketen pertsonen eta baliabideen sostengua bilatzea.
- Beren senideari buruzko itxaropen errealistak izatea, eta horren arabera laguntzean saiatzea.
- Gaixotasuna modu normalizatuan tratatzea, eta bai pertsona eta bai beraren inguruneke pertsonak modu garbian tratatzea gaixotasunarekin zerikusia duten gai guztietan.

Familiak, batuta eta elkarteen mugimenduaren bitartez, kolektibo honen beharren eledun gisa jardun dute sarritan, honako eskari hauek plazaratuz: tratamendurik onenak pertsona guztien esku jartzea, era guztietako baliabideak handitzea, ikerkuntza babestea, eta errealitate sozialera egokitutako legezko babes neurriak.

1 ZER PISU DU HERENTZIA FAMILIARRAK?

Nahasmendu bipolarra duen seme/alaba bat izateko arriskua %1 da edozein pertsonarentzat. Aitak edo amak gaixotasun hori pairatzen badu, arriskua %10-15era igotzen da.

2 BA AL DAGO GAIXOBERRITZEA IRAGARTZEN DUEN SINTOMARIK?

«Seinale- edo alarma-sintoma» deritzanak aurkitzen ditugu, hots, gaixoberritzea hasten egon litekeela adierazten diguten sintomak. Nahiz eta sintoma batzuk komunak diren nahasmendu bipolarra duten pertsona guztientzat, seinale-sintoma horiek desberdinak dira pertsona bakoitzarengan.

Depresio-episodioen seinale-sintoma arruntenak hauexek dira: tristura handitzea, eguneroko bizimoduaren kezkak handitzea, neke-sentsazioa, harreman sozialak murriztea, lo-nahasteak, arrazoi justifikaturik gabeko ondoeza fisikoa, eta abar.

Mania-episodioetan, berriz, sintoma hauek azpimarratzen ditugu: gehiegizko euforia, urduritasuna, lo-nahasteak, hiperaktibitatea, portaeraren alterazioa, eta abar.

3 KALTEGARRIA IZAN OTE DAITEKE LITIOA HAINBAT URTEZ HARTZEA?

Litioaren bidezko tratamendua oso eraginkorra da eta oso ondo toleratu izaten da, arrisku gutxirekin. Kontuan hartu behar den gauza bakarra da giltzurrunen eta tiroidearen funtzioa kontrolatu behar dela, zeren epe luzera alterazioak izan baititzakete. Hori gertatuz gero, beste alternatiba terapeutiko batzuk bilatu litezke.

4 JAKIN OTE DAITEKE ZER-NOLAKOA IZANGO DEN GAIXOTASUNAREN EBOLUZIOA?

Gaur egun, zaila da jakitea zer eboluzio izango duen pertsona bakoitzak. Larritasun handiagoa iragartzen duten sintomak hauexek izan daitezke: hasiera goiztiarra; gaixotasuna agertzea zirkunstantzia eragilerik gabe; nahasmendu bipolarreko depresioko aurrekariak egotea familian; eta beste batzuk.

5 ZER EGIN DAITEKE PERTSONAK TRATAMENDUARI UKO EGITEN BADIO?

Tratamenduari uko egiteak gaixotasuna berriz agertzera eramaten du, pertsona gehienen kasuan. Hori da ospitaleratzeen arrazoi ohikoenetako bat. Gainera, zailtasun handiagoak sortzen dira pertsonak gizarteratzeko, eta baita haien garapen pertsonalerako eta familia-harremanetarako ere.

Tratamendua ez betetzeak arrazoi batzuk izan ditzake:

- Gaixotasunaren kontzientzia ez izatea. Horrelakoetan, pertsona ez da konturatzen tratamenduarekin jarraitzeko beharraz.
- Buru-gaixotasunaren estigma eta diskriminazio soziala; izan ere, horrek ikuspegi negatiboa transmititzen du berarekin zerikusia duen guztiaz.
- Pertsonaren nekea medikazioa denbora luzez hartzeagatik; hori beste gaixotasun kroniko batzuetan ere gertatzen da, hala nola diabetean edo hipertentsioan.
- Medikazioak berak dituen albo-efektuak (batzuetan, gaixotasunak berak ekarritako ondorio gogaikarri batzuk medikazioari egozten zaizkio, modu okerrean).

Garrantzitsua da pertsonari laguntzea egoera berria onartu dezan. Berarekin hitz egitea eta gaixotasuna eta beraren tratamendua onartzen laguntzen dion guztia bultzatzea (zeregina, jarraipen sanitarioa, sostengu-taldeak, eta abar).

Azken baliabide gisa, egoera arriskugarrietan, tratamendua inposatzeko gaur egun dagoen aukera bakarra da gaixoa bere borondatearen kontra ospitaleratzea, egiaztagiri mediko bat edo erabaki judizial bat oinarritzat hartuta. Dena dela, ohiz kanpoko neurri horrek –sarritan zaila eta traumatikoa izateaz gain– ez du bermatzen gaixoak tratamenduarekin jarraituko duela altaren ostean.

6 PERTSONA BAT GAIXOBERRITZEN BADA TRATAMENDUAN DAGOENEAN, ESAN NAHI AL DU HORREK TRATAMENDUA EZ DELA ERAGINKORRA?

Ez nahitaez. Gaixoa gaixoberritu daiteke –episodio bat izan– tratamendu egokia hartu arren. Kasu horretan, komenigarria izango litzateke psikiatrak beraren tratamendu farmakologikoa berriz ebaluatzea.

7 NORENA DA GAIXOTASUNAREN ERRUA?

Ez da inoren errua.

Senide baten gaixotasunari aurre egitea oso zaila da eta emoziozko erantzun bat sortzen du, bere barnean erruduntasun, beldur, haserre edo tristura sentimenduak dituena. Senideek –batez ere gurasoek– sarritan galdetzen diete beren buruari ea beren jokabidea izan ote den gaixotasunaren eragilea. Nahiz eta pautu familiar patogenoek hitz egiten zuten teoriak baztertuta eta zaharkituta geratu diren, familientzat zaila izaten da, askotan, errudun ez sentitzea.

Bere gaixotasuna ukatu eta gertatzen zaionaren esplikazioa bilatzen duen pertsonak bere egoeraren errua botatzen die besteei sarritan, eta hori egitean sentimendu hori elikatzen du.

Eta, alderantziz, ezintasunak eta frustrazioak, gaixotasuna eta horrek berekin dakarrena ulertzeko zailtasunak, haserrez erreakzionatzeraren eraman ditzake senideak, eta baita portaera batzuk gaizki interpretatzeraren ere (adibidez: pertsona bat alfertzat hartzea bere apatiagatik).

Horrelako sentimenduak ez dira lagungarriak gaixotasuna hobetzeko; aitzitik, tentsio eta istilu gehiago sortzen dituzte.

Nahasmendu bipolarra duten pertsonengana eta haien senideengana zuzendutako psikoheziketako programak lagungarriak dira gaixotasuna hobeto ezagutzeko eta ulertzeko, eta baita gaixotasunari aurre egiteko jarrera positiboak sortzeko ere.

8 BURU-GAIXOTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK ERE HARTZEN AL DITU KONTUAN MENDEASUN LEGEAK?

Ezgaitasun intelektualak eta buru-gaixotasunak dituzten pertsonen elkarteetan errebindikazioari esker, mendetasun legeak gure kolektiboan ere hartzen du kontuan.

Lege horrek gizarte zerbitzuen baliabideak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea aitortzen die mendetasun graduren bat baloratu zaien pertsonari. Mendetasunaren balorapen hori Udala bakoitzaren oinarriko gizarte zerbitzuetan eskatu behar da, gizarte langilearen bitartez.

Balorapena egin ondoren, mendetasun gradu desberdinak ezartzen dira. Hona hemen zein diren gradu horiek:

- I. Gradua. Mendetasun ertaina edo moderatua: bi azpimaila.
- II. Gradua. Mendetasun larria: bi azpimaila.
- III. Gradua. Mendetasun handia: bi azpimaila.

Mendetasun gradua determinatu ondoren eskura daitezkeen baliabide eta prestazioak hauek dira:

1. **ZAINITZA INFORMALAK**, honako zerbitzu eta prestazio hauekin:
 - Telelaguntza.
 - Zaintzailearentzako prestazio ekonomikoa; eta Gizarte Segurantzaren alta ematea, kotizatu ahal baldin badu (jubilatuek eta pentsiodunek ezin dute).
 - Laguntza teknikoak.

2. **ETXEKO ZERBITZUAK**, honako zerbitzu hauekin:

- Telelaguntza.
- Etxeko Laguntza Zerbitzua. S.A.D.
- Eguneko zentroa.
- Atsedeen programak (aldi baterako egonaldiak egoitzetan).

3. **EGOITZA ZERBITZUAK**

- Egoitza zerbitzua.
- Eguneko zentro.
- Laguntza teknikoak.

www.avifes.org

info@avifes.org

Faxa: 94 413 21 51

Tel. 94 445 62 56


Bº Sarrikue s/n Bilbao

AVIFES

LEGE GORDAILUA: BI-1199-09

EDIZIOA: 2009





EDICIÓN: 2009
DEPÓSITO LEGAL: BI-1199-09

AVIFES
Bº Sarrikue s/n Bilbao
Tel. 94 445 62 56
Fax: 94 413 21 51
info@avifes.org
www.avifes.org